

EUSKAL HERRIKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA 2026

ARAUDIA



bertsozale
elkartea

2026/03/23

Aurkibidea

I.- HITZARMEN IZENPETZAILEAK	2
II.- IRIZPIDE OROKORRAK	3
III. SARRERA	4
IV. TXAPELKETAREN HELBURUAK	4
V. ANTOLAKUNTZA	5
VI. GAI-JARTZAILEAK ETA EPAILEAK	5
Gai-jartzaile Taldea:	5
Epaile Taldea:	5
VII. PARTE-HARTZEA	6
Faseak eta bakoitzeko parte-hartzaileak:	7
Parte-hartzea herrialdeka:	8
Epaitzeko irizpideak eta sailkapenak	8
VIII. EGUTEGIA, ZOZKETA ETA ORDEZKAPENAK	10
Saioen egutegia.....	10
Izen ematea	10
Zozketa.....	10
Ordezkapenak.....	11
IX. LANAK	13
X. ORDAINSARIAK ETA ORDAINKETA MODUA	14
XI. SARRERAK	14
XII.- ERABAKIGUNEAK	15

I.- HITZARMEN IZENPETZAILEAK

Alde batetik,

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Zuzendaritzak, Koordinazio Taldeak eta Bertsolari Txapelketa Nagusia 2026ko antolakuntza arduradunak.

Beste aldetik,

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa 2026 egitasmoan parte hartzen duten bertsolariak, gai-jartzaileak eta epaileak.

Jakitera ematen dute,

Hitzarmen honetan jasotzen diren arau eta eginbideak adostu eta sinatzen dituztela, dagozkien ondorioak eta eraginak izan ditzaten.

II.- IRIZPIDE OROKORRAK

1. 2026ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketari dagokion araudia da ondoko dokumentua, eta bere eragina txapelketa honetara bakarrik mugatuko da.
2. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa 2026 Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak antolatutako egitasmoa da.
3. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, legezko arau guztiak betetzen dituenak, bere gain hartzen du Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa 2026 modu duinean antolatzeko beharrezkoak diren bitartekoak bideratzeko ardura.
4. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa 2026 aurrera eramateko txapelketako Koordinazio Taldea osatu du Elkarteak. Koordinazio Taldearenak izango dira txapelketarekin lotutako erabakiak. Halaber, araudi honetan jaso gabeko egoeraren bat emango balitz, Koordinazio Taldearena izango da horri erantzuteko azken erabakia.
5. Bertsolariek, gai-jartzaileek eta epaileek Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen esku uzten dituzte:
 - 2026ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan sortutako emaitza osoaren kudeaketa eskubideak.
 - Irudi eskubideak, erabilera hau eduki ahal izateko:
 - Telebistaz, irratiz nahiz Internetez, zuzenean edo gerora eskainiz, 2026ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako saiok eman ahal izateko.
 - Bideo, audio, paper nahiz euskarri elektronikoetan ekoizturiko lagapenak edo ustiaketak egin ahal izateko.
 - Bertsozale Elkarteko Xenpelar Dokumentazio Zentroan artxibatzeke.
6. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa 2026ko antolakuntzatik edo/eta ondorengo ekoizpenetatik eskura daitezkeen onura ekonomikoak Bertsozale Elkartearen egitasmoari laguntzeko bakarrik erabili ahal izango dira.
7. Koordinazio Taldeak parte-hartzaile guztien arteko komunikazioa eta errespetua bultzatuko ditu, eta ekarpenak bideratzeko beharrezkoak diren kanalak irekiko ditu. Parte-hartzaile guztiek dute desadostasunak agertu eta zabaltzeko aukera, beti ere errespetuz egiten bada.

III. SARRERA

2026ko udazkenean egingo da Bertsolari Txapelketa Nagusiaren 18. edizioa. Hazparnen abiatuko da irailaren 19an eta abenduaren 20an amaituko da Iruñean.

IV. TXAPELKETAREN HELBURUAK

1. Bertsogintza erdigunean kokatu:
 - Bertsolarien aniztasuna erakutsi.
 - Epaileei eta gai-jartzaileei formazioa eskaini.
 - Bertsogintzaren inguruko kritikak edo iruzkinak sustatu.

2. Herrialdeetako bertsogintza eta bertsolaritza islatu:
 - Herrietako bertso-eskolak balioan jarri.
 - Eragileen arteko elkarlana sustatu: bertso-eskolak, erakundeak...
 - Euskal Herri guztian ari gara lanean transmisioan, sustapenean eta ikerkuntzan.

3. Bertsozaleak erakarri/aktibatu:
 - Plazaren sustapenean edo aktibazioan lagungarri izatea bilatu
 - Plazaren sustapenean herrietako bertso-eskolen papera indartu.

4. Kulturgintzan eta euskalgintzan ekarpenak egin:
 - Saioak egingo diren herrietan eta inguruan presentzia izan.
 - Erdal komunitatean eta nazioartean eragin.

5. Bertsozale Elkarteak indartu:
Ekonomikoki:
 - Txapelketa elkartearentzat diru sarrera garrantzitsua izan dadila bermatu.
 - Finantzaketan lagunduko duten bidelagunak erakarri.
 - Bazkideak handitu eta autofinantzatze handiagoa lortu.
Baliabideak indartzeari dagokienez:
 - Lantaldeak indartzen jarraitu: Sustapen Saila, Dokumentazio Saila, Komunikaziokoa...
 - Proiektuen ikusgarritasuna landu: Lanku, Xenpelar...

V. ANTOLAKUNTZA

Koordinazio Taldea: Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Sustapen Batzordeak ardura eman dionez, Koordinazio Taldeari dagokio egitasmoaren antolakuntza diseinatzea eta gauzatzea. Araudiaren eta egitasmoaren gaineko erabaki nagusiak Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak aztertu eta berretsiko ditu. 3 azpi talde izango ditu antolaketako organigramak.

- Koordinazio Taldea: Ainhoa Urien Telletxe, Ione Narbaiza Gallastegi, Maddi Ibaibarriaga Zubikarai, Oier Iurramendi Etxeberria, Oli Artola Apeztegia eta Udane Mugerza Salegi.
 - Bertsozaintza Taldea: Ainhoa Agirreazaldeggi Rekondo, Antton Fernandez Lasa, Etxahun Lekue Etxebarria, Felix Irazustabarrena Arsuaga, Ibai Lekuona Darceles, Idoia Anzorandia Kareaga, Joseba Beltza Bengoetxea, Oier Iurramendi Etxeberria, Oihana Arana Cardenal eta Udane Mugerza Salegi.
 - Logistika Taldea: Beñat Azaldeggi Lakuntza, Gaizka Azkarate Uzin, Ione Narbaiza Gallastegi, Jon Agirresarobe Lopetegi, Oier Iurramendi Etxeberria, Ortzi Idoate Viguria, Saioa Oneka Mujika eta Uxue Diaz de Cerio Aizpeolea.
 - Komunikazio Taldea: Ane Zuazubiskar Iñarra, Eneko Salaberria Gonzalez, Irati Egibar Izeta, Maddi Ibaibarriaga Zubikarai, Maria Ortega Zubiarte eta Oli Artola Apeztegia.

VI. GAI-JARTZAILEAK ETA EPAILEAK

Gai-jartzaile Taldea:

Gai-jartzaile Taldearen zeregina izango da bertsolariak bere sorkuntza lana ahalik eta egokien garatu dezan gaiak sortzea, gaien arteko oreka zaintzea eta gaiak isilpean gordetzea. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa 2026ko gai guztiak jartzeko ardura izango du taldeak.

Taldearen osuera: Bertsozale Elkartean lehentasuna diren zehar-lerroekin bat eginda egingo da taldearen aukeraketa. Saioetako aurkezleak talde antolatzaileak izendatuko ditu.

Epaile Taldea:

Epaile Taldearen zeregina izango da bertsolarien lana epaitzea. Horretarako, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa 2026rako egingo den epai irizpideen dokumentua erabiliko da.

Zazpi epailek eta bi idazkarik osatuko dute Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa 2026ko saioak epaitzeko ardura izango duen epaimahaia. Finalean bederatziz epaile eta bi idazkari izango dira.

Taldeakideak: apirilean egingo da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa 2026 epaitzen ariko diren kideen aukeraketa. Bertsozale Elkartean lehentasuna diren zehar-lerroekin bat eginda egingo da aukeraketa, horrez gain kontuan hartuko da epaile taldearen errealitate osoa (Epaile Eskola Iraunkorreko partaidetza, perfilen ezaugarriak, esperientzia...).

Ezinbestean baldintza hauek bete beharko ditu Epaile Taldeak:

- Txapelketako fase bakoitza epaile talde berberak epaituko du.
- Herralde guztiek (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Lapurdi-Baxenabarre-Zuberoa hirukoteak) gutxienez ordezkari bat izango dute.
- Epaileen kode etikoaren dokumentua onartu eta sinatu beharko dute.

VII. PARTE-HARTZEA

1. Parte-hartzea:

- a. Gehienez, 50 bertsolarik hartuko dute parte: izena ematen duten finalistek eta herrialdeetako txapelketetatik sailkatutakoek osatuko dute taldea.
- b. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa 2026n parte hartu ahal izateko ezarritako epearen barruan izena eman behar dute horretarako eskubidea irabazi duten bertsolariek.

2. Betebeharrak:

- a. 2008. urtean edo lehenago sortutakoek har dezakete parte.
- b. Bertsozale Elkarteko bazkide izan behar dute.
- c. Araudia onartu behar dute.
- d. Saioaren egunean Gizarte Segurantzari alta emanda egon behar dute.
 - Antolakuntzak Gizarte Segurantzari dagokion kudeaketa bideratuko du, eta parte-hartzaile bakoitzak bere egoera laboralaren berri emango dio antolakuntzari.

3. Konpromisoak:

- a. Txapelketako parte-hartzaile bakoitzak beste partaideenganako eta antolakuntzarenganako errespetuzko jokaera izateko konpromisoa hartuko du.
 - o Antolakuntzak emandako argibideak jarraitu.
 - o Ordu-tegiak zaindu.
- b. Entzuleenganako eta oholtzan dauden gainerako kideenganako errespetua dela eta, oholtza gaineko jarrerak zaintzeko konpromisoa hartuko du parte-hartzaileak (oholtza gaineko mugimenduak zaindu).

4. Eskubideak:

- a. Parte-hartzaile guztiek izango dute saio guztietara joateko gonbidapena. Antolakuntzak zehaztutako epean egin beharko dute parte-hartzaileek bere gonbidapenaren erreserba. Hortik kanpo, ez da sarrerarik bermatuko.
5. Bertsolarien hutsuneak betetzeko irizpideak:
- a. Kanporaketan kasuan, parte hartuko ez duen bertsolariaren ordezt, sailkapena eman dion herrialdeko txapelketako hurrengo sailkatuak parte hartzeko aukera izango du, eskubide guztiekin.
 - o Atal honetan, ordeztoko bertsolari guztiak ados baleude, moldaketak egon daitezke.
 - b. Bertsolari Txapelketa Nagusia 2022ko finalisten kasuan, berriz, utzitako hutsuneak lehenengo faseko edo finalaurrekoetako lehenengo itzuliko hurrengo sailkatuek beteko dituzte, eskubide guztiekin.
 - c. Bertsolari Txapelketa Nagusia 2022ko txapeldunaren kasuan, finalaurrekoetako hurrengo sailkatuak beteko luke eskubide guztiekin.

Faseak eta bakoitzeko parte-hartzaileak:

Hiru sailkapen fasetan banatuko da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa 2026: lehenengo fasea, finalaurrekoak eta finala.

Lehenengo fasea. Berrogeita bi bertsolarik jokatu dute fase hau, denak herrialdeetako txapelketetan sailkatuak. Sei bertsolariz osatutako zazpi talde egingo dira eta saio bakarrera lehiatuko dira.

Finalaurrekoak. Hogeita lau bertsolari lehiatuko dira fase honetan: izena eman duten Bertsolari Txapelketa Nagusia 2022ko finalistak eta lehenengo fasetik sailkatu direnak.

Bi buelta izango ditu finalaurrekoetako faseak: lau finalaurreko izango dira lehenengoan eta hiru bigarrenean. Bi saioetako puntuazioak gehitu egingo dira, baina lehenengo bueltan puntu gutxien lortu dituzten sei bertsolariek bigarren bueltan kantatzeko aukera galduko dute. Taldeak aldatu egingo dira lehenengo bueltatik bigarrenean, lehenengo bueltako puntuazioan oinarrituta.

Finala. Zortzi bertsolarik izango dute finalean aritzeko eskubidea: Bertsolari Txapelketa Nagusia 2022ko txapeldunak eta finalaurrekoetatik sailkatutako bertsolariek. Hiru saiotan banatuko da ekitaldia: goizean zortzi bertsolariek jardungo dute, eta zortzi bertsolariekin emango zaio hasiera arratsaldeko jardunari. Azkenean, puntu gehien metatu duten bi bertsolarien arteko buruzburukoarekin emango zaio amaiera.

Parte-hartzea herrialdeka:

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak, 2023ko irailaren 22an egindako ohiko bilkuran beste gaien artean "Zuzendaritzari proposamena: txapelketa nagusiko egitura eta txapeldunaren pribilegioak" arautzeko Sustapen Sailak aurkeztutako proposamena aztertu eta gero, herrialdekako bertsolarien parte-hartzea honela banatzea erabaki zuen:

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa 2026				
	Final laurdenak	Finalurrekoak	Finala	Aukera dutenak
Kopurua	42	24-18	8	50
		Eskubidedunak	Eskubidedunak	
Araba	4	0	0	4
Bizkaia	10	1	0	11
Gipuzkoa	16	3	1	20
Iparaldea	5	2	0	7
Nafarroa	7	1	0	8

Epaitzeko irizpideak eta sailkapenak

- a. Bertsoak epaitzeko irizpideak. "Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa 2026 - Bertsoak epaitzeko irizpideak" dokumentua izango da epaileek aintzat hartuko dutena.
- b. Puntuaketa sistema: 0tik 10 puntura artekoa izango da epaile bakoitzak bertso bakoitzari eman diezaiokeen puntuazioa.
- c. Sailkapen sistema. Epaimahai osoaren puntu metaketa izango da puntu kopuru erabakitzailea, eta horren arabera finkatuko dira fase bakoitzeko sailkapenak. Berdinketak hausteko, berriz, horretarako ezarritako irizpideei jarraituko zaie.
- d. Puntuaketak eta sailkapenak jendaurreko egiteko sistema. Hiru maila bereizi behar dira: ekitaldian bertan publiko egingo dena; hedabideen eskura jarriko dena; eta bertsolari parte-hartzaileei emango zaiena.
 - o Ekitaldian: Saio bakoitzaren amaieran, epaimahaiak bere osotasunean bertsolari bakoitzari eman dion puntuazioa publiko egingo da saioko aurkezlearen bitartez. Era berean, saioaren ostean, webgunean, bertsolari bakoitzak ariketa bakoitzean jaso duen puntuazioa agertuko da. Hedabideei ere horren berri emango zaie.
 - o Hedabideei: Saioaren ostean, webgunean, bertsolari bakoitzak ariketa bakoitzean jaso duen puntuazioa agertuko da. Hedabideei horren berri emango zaie.
 - o Bertsolariari: Bertsolariak bakarrik izango dute eskubidea epaile bakoitzaren puntuazioa ikusteko, betiere, bakoitzak berea eta epaileen izen-abizenik erakutsi gabe. Horretarako, puntuazioak

ikusteko eskaera egin eta Bertsozale Elkarteko egoitzan erakutsiko zaie. Ezingo da Bertsozale Elkartearen egoitzatik dokumentuaren kopiarik atera.

Bertsolarien sailkapena fasetik fasera eta finala:

Finalurrekoetara lehenengo faseko saio bakoitzean lehen postua eskuratzen duten zazpirak zuzenean, eta gainerakoak, fase osoko puntuazioaren arabera sailkapenari jarraituz.

Finalurrekoetan lehenengo itzulitik bigarrenera: saio bakoitzeko irabazlea zuzenean pasako da hurrengo itzulira; puntu gehien batzen dituzten beste 14 bertsolariekin osatuko da finalurrekoen bigarren itzulira pasatzen den taldea.

Finalera finalurreko saio guztiak jokaturik, bi saiotan metatutako puntuen arabera egindako sailkapeneko lehenengo zazpi bertsolariak pasatuko dira.

Finalean bi bertsolarik jokatuko dute buruz burukoa, goiz eta arratsaldeko ariketetan puntu gehien lortu duten biek.

Berdinketa kasuak:

Sailkapena finkatzeko nahiz txapelketako edozein fasetan bi edo gehiagoren arteko puntu berdinketak hausteko, irizpide hauei jarraituko zaie hurrenez hurren:

Lehenengo fasean eta finalurrekoetan

Lehenengo urratsa: fase hauetako bakoitza amaiturik, epaimahaikoen fase osoko banan-banako sailkapenak egingo dira, eta epaile bakoitzaren sailkapenaren arabera sailkapen puntu kopurua emango zaio bertsolari bakoitzari (adb: zazpigarrenari 7 puntu); ondoren, epaimahaikoen sailkapen puntuen batuketara egin eta koefiziente txikiena duenaren alde erabakiko da.

Bigarren urratsa: berdinketa badago, epaileen gehiengoak aurretik daukan bertsolaria pasako da aurrera.

Hirugarren urratsa: ganbarako bakarkako edota gaia emanda bakarkako lanean puntu gehien jaso duenaren alde erabakiko da.

Finalean

Buruz burukorako bi bertsolariak hautatzeko, eta eman daitezkeen gainerako berdinketa kasuetarako, lehenengo faseko eta finalurrekoetako prozedurara joko da.

Txapelduna izendatzeko

Lehen urratsa: Finaleko lan osoa kontuan izanik, epaimahaikideen gehiengoak beren banakako sailkapenean aurretik daukan bertsolariaren alde erabakiko da.

Bigarrena: Berdinketak badirau, buruz burukoan puntu gehien batu dituenaren alde erabakiko da.

Hirugarrena: Oraindik berdinketak jarraitzen badu, buruz buruko ganbarako lanean puntu gehien batu dituenaren alde erabakiko da.

VIII. EGUTEGIA, ZOZKETA ETA ORDEZKAPENAK

Saioen egutegia

Saio guztiak 17:00etan hasiko dira, finala izan ezik.

Lehenengo fasea

2026-09-19	Larunbata	Hazparne	Mendeala Aretoa
2026-09-26	Larunbata	Altsasu	Burunda Pilotalekua
2026-09-27	Igandea	Lekeitio	Santi Brouard Pilotalekua
2026-10-03	Larunbata	Donapaleu	Airetik Pilotalekua
2026-10-04	Igandea	Tolosa	Usabal Kiroldegia
2026-10-10	Larunbata	Gotaine-Iribarne	Herriko gela
2026-10-11	Igandea	Agurain	Lezao Kirolgunea

Finalurrekoak

2026-10-24	Larunbata	Larraun-Lekunberri	Plazaola Kirolgunea
2026-10-31	Larunbata	Eibar	Ipurua Kiroldegia
2026-11-07	Larunbata	Gernika-Lumo	Jai Alai Pilotalekua
2026-11-14	Larunbata	Biarritz	Jai Alai Pilotalekua
2026-11-21	Larunbata	Donostia	J.A. Gasca Udal Kirol Gunea
2026-11-28	Larunbata	Gasteiz	Mendizorrotza Kiroldegia
2026-12-05	Larunbata	Bilbo	Bilbao Arena

Finala

2026ko abenduaren 20an, Iruñeko Nafarroa Arenan. 11:00etan eta 16:30ean.

Izen ematea

- Martxoaren 23tik apirilaren 7ra izango da.
- Bertsolari sailkatuei izen emate orria bidaliko zaie posta elektronikoz, bete dezaten.

Zozketa

- Saioak zozketaz erabakiko dira apirilaren 18an egingo den saioan.
- Lehenengo faseko saioetan ez da talde-bururik izendatuko.
- Finalurrekoetan ezberdin jokatuko da fase batetik bestera:
 - Lehenengo itzulian, Bertsolari Txapelketa Nagusia 2022ko finalistak eta lehenengo faseko saioak irabazi dituztenak izango dira talde-buru; gainontzekoak sailkapen zerrenda jarraituta kokatuko dira, zozketak utzi dituen hutsuneetan.

- b. Bigarrenean, lehengo itzuliko saio irabazleak izango dira talde-buru; gainontzekoak sailkapen zerrenda jarraituta kokatuko dira, zozketak utzi dituen hutsuneetan.

Ordezkapenak

Araudi honetan ezinezkoa da ordezkapenen kasuistika osoa aurreikusi eta zerrendatzea. Oso salbuespenekoa izango da ordezkapen bat onartzea, parte-hartzaile guztiengan zein antolakuntzan duen eraginagatik.

Egon litezkeen eskarien aurrean honako prozedura segituko da:

Apirilaren 18an egingo da zozketa. Egun konkreturen batean ezintasunen bat balego, zozketaren aurretik egin daitezke aldaketa eskaerak. Talde Antolatzaileak erabakiko du aldaketa onartu ala ez.

Zozketaren ondoren eskaerarik balego, Talde Antolatzaileak aztertuko luke eskaera.

Txapelketa abian jarririk, saioa jokatu aurreko egunetan agertuko balitz ezin hori, parte-hartzaileak lehenbailehen jakinarazi beharko dio antolakuntzari. Talde Antolatzaileak aldaketa onartzen duen ala ez erabakiko du. Onartu edo ez onartu, bertsolariak parte hartu ala ez erabaki beharko du gehienera Talde Antolatzaileak erabakia jakinarazi eta hurrengo hogeita lau ordutan.

Ez parte hartzea erabakiko balu edo epearen barruan erabakirik jakinaraziko ez balu, honela beteko da bere lekua:

- c. **Lehenengo fasean:** Parte-hartzeari uko egin dion bertsolariari sailkapena eman dion herrialdeko txapelketako ordezekoak ordezkatzeko luke, eskubide guztiak bereganatuz.
 - i. Atal honetan, ordezeko bertsolari guztiak ados baleude, moldaketak egon daitezke.
- d. **Finalurrekoetan:** Lehenengo bueltan gertatzen bada, final-laurdenetako sailkapenari jarraituko zaio, eta eskubide guztiak bereganatuko ditu ordezkatzailleak. Bigarren bueltan gertatzen bada, lehen bueltako sailkapenean hurrengoak ordezkatzeko du, eskubide guztiekin.
- e. **Finalean:** Finalurrekoetako sailkapenari jarraituko zaio. Goizeko saioa hasi aurretik gertatzen bada, finalurrekoetako sailkapeneko zerrendari jarraituko zaio, eta eskubide guztiekin sartuko da ordezkatzaillea. Arratsaldeko saioa hasi aurretik gertatzen bada, eskubide guztiak galduko ditu ordezkatuak; ordezkatzaillearen lana puntuatu egingo da, baina ez du aurrera egiteko aukerarik izango. Buruz-burukoaren aurretik gertatzen bada berriz, ordura arte sailkapenean 3. postuan doanak ordezkatzeko du.

Aldaketak nola egin

Talde-buruak eta talde-buru ez direnak banatu egingo dira ordezkapen sistema finkatzeko.

Ordezkapen kasuak bideratzeko ordena bi mailatan ezarriko da, saio berean kantatuko duten bertsolarien artean: talde-buruak batetik eta gainontzekoak, bestetik. Aldaketa posibleak zehazteko bertsolariek zozketan atera duten ordena hartuko da kontutan, honako prozedura segituz:

- **Ordezkaturia:** Talde Antolatzaileak aldaketarako aukera onartzen badu, hurrenkeraz saio bat atzera pasatuko da aldaketa eskatu duen bertsolaria. Saio honetan kantatzea ere posible ez bada eta emandako arrazoia Talde Antolatzaileak onartzen badu, saioz saio atzeratzen joango da ordezkapena posible izan arte.
- **Ordezkatzaila:** Talde-buru kasuan (diagraman urdin ilunez): Talde-buru bakarra dagoen lekuan ez da zozketarik egingo. Talde-buruak bat baino gehiago direnean, zozketa bidez saiora heldu den azken bertsolaria izango da (2. bertsolaria) aldaketa kasuan lehen ordezkapen aukera. Ordezkapena eskatzeko irizpideak berberak onartuko dira ordezkatzailak aldaketa egin nahi ez duen kasuetan ere. Aldaketa ez egiteko arrazoiak onartuz gero, aurrekoa (1. bertsolaria) litzateke ordezkatzaila.

Beste bertsolarien kasuan (diagraman urdin argiz): zozketa bidez saiora heldu den azken bertsolaria izango da (6. bertsolaria) aldaketa kasuan lehen ordezkapen aukera. Ordezkapena eskatzeko irizpide berberak onartuko dira ordezkatzailak aldaketa egin nahi ez duen kasuetan ere. Aldaketa ez egiteko arrazoiak onartuz gero, aurrekoa (5. bertsolaria) litzateke ordezkatzaila.

Finalaurrekoen kasuan, prozedura bera segituko da. Kasu honetan, bertsolarien ordena ez da zehaztuko zozketa bidez, aurreko fasean lortutako puntuazioagatik baizik.

1. saioa	2. saioa	3. saioa	4. saioa	5. saioa	6. saioa	7. saioa
1.Bertsolaria	1.Bertsolaria	1.Bertsolaria	1.Bertsolaria	1.Bertsolaria	1.Bertsolaria	1.Bertsolaria
2.Bertsolaria	2.Bertsolaria	2.Bertsolaria	2.Bertsolaria	2.Bertsolaria	2.Bertsolaria	2.Bertsolaria
3.Bertsolaria	3.Bertsolaria	3.Bertsolaria	3.Bertsolaria	3.Bertsolaria	3.Bertsolaria	3.Bertsolaria
4.Bertsolaria	4.Bertsolaria	4.Bertsolaria	4.Bertsolaria	4.Bertsolaria	4.Bertsolaria	4.Bertsolaria
5.Bertsolaria	5.Bertsolaria	5.Bertsolaria	5.Bertsolaria	5.Bertsolaria	5.Bertsolaria	5.Bertsolaria
6.Bertsolaria	6.Bertsolaria	6.Bertsolaria	6.Bertsolaria	6.Bertsolaria	6.Bertsolaria	6.Bertsolaria

Lehenengo saiora

IX. LANAK

Lehen fasea

- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.
- Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.
- Ganbarako lana: Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Finalurrekoa: lehen itzulia

- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.
- Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte.
- Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.

Finalurrekoa: bigarren itzulia

- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.
- Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.
- Ganbarako lana: gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Finala:

Goiza:

- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.
- Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso berdinen moldeko sei puntuko zortzikoan (seiko motza).
- Ganbarako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Arratsaldea:

- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.
- Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte.
- Bakarka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Buruz-buru:

- Binaka, gaia emanda, launa bertso zortziko txikian.
- Binaka, gaia emanda, sei koplara osatu arte.
- Banaka, hitza gaitzat emanda, bertso bat txikiaren moldeko bederatziko puntuko hamalaukoan (bederatziko txikia).
- Ganbarako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

X. ORDAINSARIAK ETA ORDAINKETA MODUA

1. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako 2026ko saioetan parte hartzeagatik **bertsolariak** ondorengoa jasoko dute gordinen:
 - o Lehen fasea, bertsolarien ordainsaria: 285€ euro saioko
 - o Lehen fasea, ordezeko bertsolarien ordainsaria: 85€ euro saioko

 - o Finalaurrekoak lehenengo itzulia, ordainsaria: 350€ euro saioko
 - o Finalaurrekoa, ordezeko bertsolarien ordainsaria: 275€ euro saioko

 - o Finalaurrekoak bigarren itzulia, ordainsaria: 450€ euro saioko
 - o Finalaurrekoa, ordezeko bertsolarien ordainsaria: 350€ euro saioko

 - o Finala, bertsolari finalistak: 1.500 € saioa
 - o Finala, bertsolari txapeldun-ordeari: 4.000€ko saria.
 - o Finala, bertsolari txapeldunari : 6.000€-ko saria
 - o Finala, ordezeko bertsolaria: 450€ saioa
2. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako 2026ko saioetan parte-hartzeagatik **epaile eta idazkariak** ondorengoa jasoko dute gordinen:
 - o Saio guztietan, epailearen eta idazkariaren ordainsaria: 150€ saioko
 - o Saio guztietan, ordezeko epailearen ordainsaria: 85€ saioko
3. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako 2026ko saioetan parte-hartzeagatik **gai-jartzaile eta aurkezleak** ondorengoa jasoko dute gordinen:
 - o Saio guztietan, gai-emaille edo aurkezlearen ordainsaria: 150€ saioko
 - o Saio guztietan, ordezeko gai-jartzailearen ordainsaria: 85€ saioko
4. Antolakuntzak ordainketak egiteko egin beharreko kudeaketak bideratuko ditu, eta parte-hartzaile bakoitzak bere egoera laboralaren berri emango dio antolakuntzari.

XI. SARRERAK

1. www.bertsosarrerak.eus atarian salduko dira saio guztietako sarrerak.
2. Bertsosarrerak atarian saldu ez diren sarrerak egunean bertan lehiatilan eskuratzeko aukera egongo da.
3. Sarrera motak:
 - a. Bazkideak: Bertsozale Elkarteko bazkide direnek erosi ahal izango dituzte sarrera mota hauek.
 - b. Ez bazkideak: Edonork erosi ahal izango ditu sarrera mota hauek.

- c. Gazteak: 18 urtetik beherakoek erosi ahal izango dituzte sarrera mota hauek.

4. Salneurriak:

	BAZKIDEAK	EZ BAZKIDEAK	GAZTEAK
LEHENENGO FASEA	12€	14€	8€
FINALAURREKOAK	16€	22€	12€
FINALA	36€	52€	24€
BONOAK	140€		

XII.- ERABAKIGUNEAK

Behin onartuta, araudi hau da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa 2026aren gaineko erabakiak hartzeko eta prozedurak zehazteko marko nagusia. Txapelketako Koordinazio Taldearen ardura da hori aplikatzea.

Araudi honetan jasota dauden arauetan sortu litezkeen interpretazioen gaineko arazoak zein araudi honetan jasoa egon ez eta sortu litezkeen gertaerak modu honetan erabakiko dira: Txapelketako Koordinazio Taldeak eztabaidatuko du eta proposamenak egingo ditu. Proposamena Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak onartuko du. Betiere, Zuzendaritza Batzordeak izango du azken hitza.

